

Landare au agitz gosea da, nai du onkallu aunitz eta mota bat baño geyago, batez-ere, ongari berietarik.

Guda zikin au dela-ta aurtan ola-onkallu ok agitz garesti dire ta eskasi aundia omen-da gañerat. ¿Zer egin, bada? ¿nola ongartzizatu luf-sagarak? Abere-ongaria ta sukálde-tako autsak nasaiki emanez.

Gazagut lugin argi zur bat agitz uzta yoriak etxeratzan dutuana; urteko auts guziek biltzen díju berez eta multzo edefa egin ere bai ta guzi-guziak luf-sagar, udarbi ta barazkieri eman gero ¿ardura labur au aítzea gaitz al-zaitzu, lugin maite ori? Ez, agian.

Eta enen azkena emaiten diot egungotz jardun-alditxo oni, ene biotz-agura digofitzuela zuri, laguna, lenik eta gero zere emazte on eta umieri ta irakurle oreroi.

Lugintsale.

Etxalar (Nabara).



Itxaskuntza-gayak

ERAXOL-ARUA

(besigu-sasoya)

Lengo idazkayan agindu neban, eraxolatiak antzinetik ona daukon aldakun edo *mudontza* atzaldutia. Orain urte gitxi, goxeko ordu batetan edo beluben ordu bijetan jagiá, *juan biarke zan efazola-lekura*, besuak edeíto luzatuta, txalupia, *trañerea* edo potin andija eruan-ezinda, atan be, axe gogofak aure-aldetik joten ebanian. Gauñ eztago olakorik. Goxeko iruretan jagiá be afantzaliak, ordu onian eltzen dira *kalara* itxontxiñuak, baruko gixonak, bultzijan edo trenian dabilatzazan lagunen antzera, berera-berera, bape neke-barik, eta utz ba-dago, laba-aurian jagiá, lo be egin lei, afantzukokirarteke *juan-etorija* egiten daben bitartian.

Afantzale zaten onduan eztakije afantzale gastiak zer diran nekia ta lorik-eza.

Au ta be, goxeko irurak ordu ona ixan afen itxasora araxoletan urteteko, belguntza edo *misión* bat edo beste eleiz-jai andiren bat egoten danian atsuaí jazoten yakena, geuri be gertatzen yaku. Orduba baño askoz lenago txadonera (eleizara) juaten dira atsua, ofelako aldijetan, euren gurako lekuba artzen. Afantzaliak be orduba baño lenago elduten dira *kalara*, eurak gura daben lekuba arituen, albo-urijetakoen bildurez, gero amutxortak (tretzak) aukera osuagaz botateko. Ludi onetan, zetara edo atara beti dago lofa. Beraugatik, goxeko ordu bijetan ¡talan...! ¡talaan...! ¡talaan...!

Esaterako Bermeo'n afantzaliñ txiliña entzutia, ta Elantxobe'n zeñarija adara edo kornetia joten (lenago txanboliña zan; gauñ adara, diru-zezagatik edo) kalerik-kale ikustia, ta Lekeitio'n bakotxa bere etxian: Kosandres, ¡gora Jaungoikua'ren ixenian! Etopail, ¡gora Jaungua'ren ixenian!... (1) didarez entzutia, ezta ikaratzekua gauñ be.

Afaxola-aruan (besigu-sasoyan) goxeko ordu batetan ufeten dira itxontziño gustiak deya dabeanian, urengorik-urengora alkafen atzian. Beste afantzuk-aldijetan, ez. Lengo txalupakiñ baño, oingo itxontziño labanakiñ urunago sartzen dira afantzaliak itxasuan, baño ez ekañ etxerako diru

geyagorik. ¿Zelan *démontre* ixan leike ori? Eztakienai urfenguan esango dautset.

Mañel-Zafá.

(1) Urtlija edo berendija, ¡gora Jaungua'ren ixenian! Beste tokijetako afantzaliñ deikereai ezer kendu-barik, leketiaren deikerea edefena da gustijen artian, kistañak asmau leiken edefena. ¡Gora Jaungua'ren ixenian, gurasoentzatz edo emazte ta seme-alabaentzatz egunoko ogija ekañtera!



Euzko-gixarte-gayak

Langile ta lan gustijetzaz

"Euzko-Deya" argialdu dabeben asmo zorunduna, euzkeldun gustijai ingi onen bidez itz egitia ixan da, bako txari, ardurarik geyen emoten dautsaen gauzeatzaz, era ofetan, geure ele edei oni, herari yagokon eta zor dautsogun gorabena ordaindurik. Eta euzkeldunetarik geyenok langiliak garanez lan-gauzeatzaz zerbait idaztia, gauzarik egokiren bat da, nai luginen zereginietzaz- nai osterantzeko bixi-bidietan lan egiten dabeben arazuetzaz.

Ora of zegatik "Euzko-Deya'n beti ixango dan lekutxu bat, arazo ofein gora-beraetan ekiteko.

Orain-arte, Bilbao'ko "Euzko-langillien Alkartasuna" deritxon batzak urturo agertzen dan idaztiñotxuban irakuri dogu zedozer, euzkeraz idaztia, lan-gauzeatzaz. Emendik afe, arazo ofeitaz be zertxubait esango dogu "Euzko-Deya'n. Batez-be, aurtengo idaztiñotxuban langillioek euzkeraz argialdu daben idazkun-gayari, ekingo dautsogu, gai ofetan bai-dabelako ikasi euzko-langilliak.

Eta euzkeldun luginak edo luf-langilliak, baseritik nekez urtetan diranak, ¿ez ete-dabe ezer jakin-biarik, euraen bixijeran auferakada-apurtxu bat, al ba-da, egiteko? ¡Bai, amai-katxuk! Zaletu zafeze, ba, euzkeldun luginok, "Euzko-Deya" amabostik bein irakurten, eta, zinu onura askotxu atara-barik etzare geratuko.

Ez atzeratu, beintzat, inor be, urtian lau'leko bigatik; bai-dakizube ba, erain-baga ezta ere batuten eta.

Landaburu'tar P.

ERTI-GAYAK

Jauntxuaren moroyak

Ene irakurle: Nator zeuri ixil-ixillik- ipuintxo bat esatera.—Beronen gixako gertakerak ¡jakiña!,—ixillik gordeztekoak dira.—Baña nik ezin-det nere barnean—berau inola ere gorde.—Beraz, nik zuri esan-afen, zuk—eduki inori esan-gabe.

Ora bada: orain azkenko—austeskunde-inguruban—Gi-

puzkoa'ko jauntxo bat—bere praktetan txit lari zegoan.—
Ta ofa nun gau batian—bere bi mo'oe kaletari—aginde
zien jun zitezela—ixoin-gabe egunari—ufuti-sama' arki-
txen zan—basetxe lakar' batera—bertan bizi-ziran gizonai
—beren autarkia eskatzera.—

Kaletarok, gabeko ibilli bea' onek—ez zitun batere poz-
tu,—baian ez zuben nai inola ere—bere jauntxu-kikua gal-
du,—ta itxik atera-gabe,—basetxerako ziran gertatu.—Az-
kar' ta ezere arizku-gabe,—gure aldatzak igarotzeko—naiz
gabez ta naiz egunez.—bi gauza dirade asko.—ankaren la-
gun izan dedin—makilla on bat eskuan,—ta bide erdijan
makalduta ez gelditxeko,—biotz sendo bat albuari.

Gauza aben orde, gure mo'oyak,—ezdakit zeren bildur-
akin,—abiatu ziran besetxe-aldera *erebolbera* banarekin.—
Patzikaran zeraman izkiliuari—igortzi leunak emanaz,—
onela ziyon batak besteari—aldatza makal igaroaz:—“Ere-
bolbera onak daramazkigu,—betor' nai-duena gugana,—
;Egundo inor juan dan! azkaren—of juango da anka
gora!”—“;Ori, mutil, ziyon besteak,—eskua saftuaz patzi-
karan—;Azkar' juango litzake, bai,—emango ginaken dan-
baran!”—

Onela zijuazen mendiyari gora—batak baño bestek arua-
go—alde guzietara begiratuaz,—noiz-baño-noiz zerbait iku-
siko.—Alaz guziyaz, eskutatu-nairik,—bakotxak zeraman
bildur lariya—aitatzen zuten bizitasunez—auteskundietako
egun aundiya.—Ziyotenez, berena izango zuten—egun ar-
tan garaitza,—areriyuak lagako zituzten—beti-betiko za-
palduta.—Batzuei agindubaz, besteak bilduratuaz,—autarkia-
yok zituzten berenganatuko,—ta orduan ziyozten basetxe-
koak ere—jauntxuengana zituzten beartuko.—Otan: bat
batetan gelditurik,—begiyak lari-lari zituala,—esan zuan
batak estu—bide-batet' batera begira:—“Zer dek kereiza
ori, mutil?—;Begira zak of aurian eskeretara!”—“;Egi-
va!”—ziyon besteak gelditurik—;Zer da ori?... ;Gizona
ote-da?—Ta biziro lariya ziyon lenengoak:—“;Ez! ;ez
dek ori, gizona!—begirayok ongi, ikusi zak,—gizonarena
baño kereiza aundiya goa da.”—“;Ain laster dek aundiya.
—ain laster txikitxua!—;Eman izango ote-da gure azke-
na?—;Au biotzeko saltua!”—Ta ibilli egiten dek!—;Ene,
nere ama kutuna!—begira, ibilli egiten dek:—;Ene... ;Bai
ziatok geregana!—ta gevagoko gabe, biyak,—estu, lari ta
alkari bultzaka,—egundoko anka-soñuakin—asi ziran alda-
tzian bera,—ta baia garai bertan aditu zuten.—;Asto haten
afantza!

Bide-erdiyan gelditurik,—astoari begira,—zioten: “;As-
toa dek, mutil!—;Ara estusuna eman diguna!”—Beltza-
goa, mutil,—bilduren bildurez,—erebolberak genduzanik—
;gogoratu ere ez!

Tenc.

Seaska-alboan Ama'ren abestia (Miren Eulale'rentzat)

Lo, lo, lo,
Kufuna,
Gurasoen zoruna;
Ez negar,
Lo-egin,
Lo gozo bat, atsegin,
Gotik seaska-albora
Datozen gotzonekin.

Lo, lo, lo,
Ma' ori,
Begi zoliak ertsi;
Umetxu
Nirea,
;Nork izutu, maitea?
Amatxuk mamau ofi
Emongo'tso berea!

Lo, lo, lo,
Ba-daizu,
Goi-saria daketzua.
Urezko
Egoak
Ezarko'tzuz Jainkoak,
Egaz daizun noranai
Diraun artean loak.

Lo, lo, lo,
Danari
Amets gozoa beti
Bidaklu
Oi-dautso
Goiko-Jaunak agudo
Esanaz: “Maite dot nik
“Geldi-ixil dagona lo”.

Lo-egin,
Laztana,
Poz bizia zarana!.....
.....

Lo dago:
Aftu dau.
Ikusi gotzontxu au!
Biotza, lotartein,
Goi-Amak jagongo zau.
Elizalde'ta' Koldobika.

1916, Otsailla.

“EUKELTZALE-BAZKUNA,” RI (azkenian be urten zara zeuriaz)

I

Ainbeste bidar esan dautzut ba
“Enkeltzale-Bazkun” ofi
Nire argazki ez baltitzeko
“Euzko-Deya”ren ingori
Enazalako dain ortarako
Jakitun zengozan ori.
;Zenbat oldozmen etc-dabildaz
Gautegun juan etori!
;Zer esango dau ni nazaudanak?
;Ta idazkun au irakuri?
;Gomutan onek bigurtzen daustaz
Ene begijok ituri!

II

Alde batetik eskar' dagitzut
Oren maite nozulako
Bana argazki au itxi ba-zendu
Neu ilten naizenerako
Ta barenian idazkun auxe
“Kepa Jeltzale zalako